



# **Bilboko Eleizbarrutiko Komunikazino Egitasmoa**

## **2018-2021**


**Gizarte Komunikabideetarako  
Eleizbarrutiko Saila**





“**Ebanjelizatze-egitasmoaren** esanetara dagoan Bilboko Eleizbarrutiko komunikazino egitasmo hau gure **lekuko Eleizan komunikazino kultura** era egituratu eta eraginkorren **txertatzeko** oinarria izan daiteke hark **Barri Ona gizartean** egoki **zabaltzen** lagundu daian”, inoan gotzainak 2014-2017 aldiari zegokien egitasmoaren sarreran.


Bidezko ebaluazioa eta hausnarketa estrategikoa egin eta Gotzain Kontseiluan onartu ondoren, Komunikabideetarako Eleizbarrutiko Sailak 2018-2021 komunikazino egitasmoaren gaurkotzea burutu dau, eleizbarrutiko gainerako errealitateak batera, Bizkaian ebanjelizazioaren sendotzari laguntzeko helburuagaz.



# BIZKAIKO ELEIZAREN INGURUKO IKUSPEGIA. 2017ko EKAINA

## ZELAN BALORATZEN DA ELEIZA?

- Herritar guztien artean, eleizara joaten diranen balorazioa da zuhur eta positiboa.
- Hori holan izanda be, katolikoaren artean, %20 inguruk Bizkaiko Eleizaren balorazio negatiboa egiten dau.



ELEIZA  
KATOLIKOAREN  
BALORAZINO  
POSITIBOA  
KATOLIKOEN ARTEAN

... BOSTETIK BATEK  
BALORAZINO  
NEGATIBOA EGITEN  
BADAU BE

KOMENIGARRIA  
LITZATEKE GURE  
IRUDIA HOBETZEN  
SAIATZEA

BIZKAIKO ELEIZAREN  
INGURUKO IKUSPEGIA  
txostena osorik



# Emaitza eta ondorio nagusien laburpena

## ZE URRATS EMON BEHARKO GEUNKE AURRERANTZEAN?



# Bilboko Eleizbarrutiko Komunikazio Egitasmoaren ebaluazioa (2014-2017)

## EKINTZAK ETA ADIERAZLEAK (Barruko komunikazioa)



Barruko komunikazioa

- Nortasun korporatiboaren gidaliburua prestatu
- Organigrama web orrialdean txertatu
- Eremu bakotxean guztien karpetak ezarri
- Barruko albistegiak bialdu
- Kontu elektroniko bateratu barriak prestatu
- Web arloren bateko eguneratzeak postaz jakinarazo



Barruko komunikazioa

- Datu-baseak bateratu
- Web edukien eraginkortasuna aztertu
- Etorkizuna daben ekintzak ezagutu eta barruko komunikaziorako protokoloak ezarri
- Aldizkariaren harpidedunen iraupena lortu
- Irratiakaz batera jarduteko protokoloak ezarri gertaera garrantzitsuen barri emoteko
- Bikaritzen eta Kuriaren arteko komunikazioa bultzatu



Barruko komunikazioa

- Barruko komunikazioaren egoera aztertu Ordezkaritzetan
- Barruko komunikazio-kultura suspertu beharrezko tresnak garatuz
- Mediatekaren pastoral egitekoa aztertu eta eragileen definizio barria bultzatu
- Eleizetan, agenda eta kartelen ordez euskarri elektronikoak ipini

## EKINTZAK ETA ADIERAZLEAK (Kanpoko komunikazioa)



**Kanpoko  
komunikazioa**

- Jai erlijioso aitagarrienen zerrenda osatu eta horren barri emon
- Gardentasun ekonomikoari buruz sentiberatasuna bizteko kanpainak egin
- Gizarte-karidade arloko jarduera aitagarrienen barri emon
- Barri emoteko gosariak antolatu gotzainagaz eta komunikabideakaz
- Buletin elektronikoak bialdu, hedabideen arreta erakarri leikien barriakaz



**Kanpoko  
komunikazioa**

- Albisteak 'neurrira' eskaini komunikabide bakotxari
- Komunikabideen arreta biztuko daben ekitaldi publikoak antolatu
- Komunikabide garrantzitsuenetako zuzendari-tzakaz batzartu
- Hartu-emon publiko eta instituzionalak zaindu
- Sareetan egotea bultzatu



**Kanpoko  
komunikazioa**

- Laguntzaileen zerrenda egin eta komunikabideei aurkeztu
- Eremu publikoan publizidade-kanpainak egin






## EGITASMOARI ERANTSI BEHARREKOAK


### BARRUKO KOMUNIKAZINOA

I. Egitasmoan burutu barik geratu ziran  
ekinzak garatu edo amaitu



### KANPOKO KOMUNIKAZINOA

I. Egitasmoan burutu barik geratu ziran  
ekinzak garatu edo amaitu



## Eleizaren 4.0 komunikazioa

Ondorengo eskeman, era digitalean Eleizaren komunikazioa hobetzeko hainbat giltza jasotzen da. Hain zuzen be, Miriam Diez Bosch And.ak (Komunikazio, Erlejino eta Kulturarako Blanquernako Behatokia) 2018.eko maiatzaren 10ean Bilbon ospatu zuen Gizarte Komunikabideen jardunaldian azaldu ebazanak dira. Ideia honeek, Bilboko Eleizbarrutiko 2014-2017 Komunikazio Egitasmoan nabarmendutako erispideetako batzuen osagarri dira.

Uri sekularra Jainko ezezaguna iragarteko aukera lez baloratu

Mezu baikor eta itxaropentsuak emon komunikazio publikoetan

'Arrisku-pastoralá' bultzatu kontinente digitalean

Dinamikoa, sentsoriala, emotiboa eta edertasuna bultzatu

Beharrezkoa danean, isiltasun edo barau digitala aukeratu

Pazientzia, hausnarketan, oinarrietan, alkartasunean hezi

Konfiantza sortu sinisgarritasunez eta koherentziaz

Gazteria ekintza zehatzetan konprometitu

Sinergiak sortu eleiz barruan eta gizarte erakunde zibilakaz



## Ikuspuntua: Bizkaiko Eleizaren irudia hobetu

**I.1.**  
Eleiza gertuko lez ikusten jarraitu

**I.2.**  
Gardentasunaren balioa sendotu

**I.3.**  
Personen aldeko konpromisoa berezko balio lez gorde eta zabaldu

**I.4.**  
Modernotasun eta gazteenganako gertutasun irudia hobetu

### SAIL BARRUKO JARDUERA

#### Baliabideak

**J.1.**  
Barruko prozesuak ezagutu

**J.2.**  
Iraunkortasunari eutsi

#### Jarduera

**J.3.**  
Sinergiak konpartitu eta geure komunikabideak aprobetxatu

**J.4.**  
Eleizbarrutiko erakundeen jardueren zabalkundea sendotu

#### Garapena

**J.5.**  
Barruko prozesuak optimizatu eta garatu

**J.6.**  
Barrikuntza teknologiko-rako jarduerak zehaztu

#### Itunak

**J.7.**  
Barruko eta kanpoko erakundeak lankidetzaz egitasmoak eta itunak egin



### Personak eta Erakundea (Saila) ikuspuntua



**P.1.**  
Taldekideen prestakuntza jarraitu ziurtatu

**P.2.**  
Prozesu komunikatiboak ezarri Pastoral Kurian

**P.3.**  
Sailaren eta Erakundeen arteko komunikazioa hobetu

**P.4.**  
Saileko antolakuntza-egiturari eutsi

# KOMUNIKAZINO EGITASMOAREN EKINTZAK (2018-2021)



### I.3. Personen aldeko konpromisoa

Gotzainak gizarte-karidade erakundeetan dituan esku hartzeen segimendu informatiboa egin

Konpromisoaren inguruko pieza eksklusiboak ziurtatu sareetan

Gizarte-karidade gaiet buruzko barriak edo alkarrizketak argitaratu Alkarren Barrin

Multimedia piezak ziurtatu entzumen-desgaitasuna dabenentzat

Konpromisoaren inguruko barriak aurkeztu web orrialdean

### I.4. Gazteengana hurreratu

Gazteen topaketen segimendu informatiboa ziurtatu

Gazte pastoraltzako arduradunakaz batzartu

Gazteen inguruko barriak eskaini komunikabideei

Gazteen inguruko barriak argitaratu Alkarren Barrin

Gazteen inguruko barriak ziurtatu sareetan

## Barruko jarduera

Sinergiak  
konpartitu  
eleizbarrutiko  
irratia kaz

Eleizbarrutiko  
erakundeen  
jardueren  
zabalkundea  
sendotu

Lankidetz-  
egitasmoak eta  
itunak ziurtatu

Prestakuntza-  
ikastaroak  
ziurtatu  
taldearentzat



“Dei egiten dot bake-kazetaritza suspertzeko, baina dalako kazetaritza hori ez daitela arazo larriak “arintzeko” eta “lausotzeko” jarreraren ondorio izan eta ez daiala kutsu melenga euki. Hain zuzen be, plantetan ez dabilen eta faltsukerien, eslogan elektoralisten eta hotsandiko adierazpenen aurka dagoan kazetaritza aldarrikatzen dot; pertsonak pertsonen alde egiten daberen kazetaritza eta danen aldeko eta, batez be, munduan gehiengoa diran ahots bakoien aldeko kazetaritza; albisteak erreko ez dituan, gatazken benetako arrazoiak bilatuko dituan kazetaritza; prozesu bertutetsuak martxan jarriz gatazken sustraiak ulertzea eta gainditzea ekarriko dauan kazetaritza; aldarri eta indarkeriaren igoaldiari bestelako konponbideak jarten saiatuko dan kazetaritza”.

**“Egiak aske egingo zaitue”**

**Aita Santuaren mezua Gizarte Komunikabideen  
2018ko egunerako**



